# ENPRESENTZAKO DIRULAGUNTZAK

## AURKIBIDEA

ENERGIA EFIZIENTZIA (eta ikuskaritzak) ..................................... 1
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK.................................................. 10
ENERGIA KOMUNITATEAK ...................................................... 15
KLIMA ALDAKETA (karbono aztarna eta ekonomia zirkularra) ..... 15
MUGIKORTASUNA.................................................................. 16

## ENERGIA EFIZIENTZIA (eta ikuskaritzak)

<table>
<tr><th colspan="2">1. INDUSTRIAREN ETA HIRUGARREN SEKTOREAREN ETEetan ENERGIA-IKUSKARITZA INTEGRALAK EGITEKO LAGUNTZEN PROGRAMA</th></tr>
<tr><td>Helburua</td><td>Enpresetan energia-ikuskaritza integralak burutzea eta bertatik eratorritako hobekuntzak edo aldaketak exekutatzea.</td></tr>
<tr><td>Egoera</td><td>Irekita</td></tr>
<tr><td>Indarraldi epea</td><td>2023/04/25-2024/03/29</td></tr>
<tr><td>Onuradunak</td><td><ul><li>Industria ETE (Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionaleko 07tik 39ra bitarteko taldeak, biak barne)</li><li>3.sektorea ETE (Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionaleko 41etik 99ra bitarteko taldeak, biak barne)</li></ul></td></tr>
<tr><td>Lagunduko diren jarduerak</td><td><ul><li>UNE-EN 16247 arauaren arabera energia-ikuskaritza integralak</li><li>Energia-ikuskaritzatik eratorritako ondorengo aldaketak edo hobekuntzak: energia berriztagarriak ezartzeko, energia aurrezteko eta energia-eraginkortasunerako eragina dutenak.</li><li>Ezin izango dira laguntza-programa honetan sartu 1.000 eurotik beherako jarduerak (BEZa sartu gabe).</li></ul></td></tr>
<tr><td>Laguntzaren ezaugarriak</td><td><ul><li>Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak</li><li>Onuradunek jaso beharreko laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako eman daitezkeen beste dirulaguntzekin.</li><li>Hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era irits daiteke.</li><li>Eskaerak aurkezteko hurrenkerari hertsiki jarraituz beteko dira, funtsak agortu arte.</li></ul></td></tr>
<tr><td>Laguntza kopurua</td><td><ul><li>Burutzen diren jarduerak %50ean lagunduko dira.</li><li>Gehieneko kostu-muga</li></ul>
<table>
<tr><th colspan="2">Energia-kontsumoa (tpb/urte)</th><th>Diruz lagundu daitekeen gehienezko ( kostua (€)</th></tr>
<tr><td>300</td><td><500</td><td>9.800</td></tr>
<tr><td>150</td><td><300</td><td>7.700</td></tr>
<tr><td>50</td><td><150</td><td>6.600</td></tr>
<tr><td>30</td><td><50</td><td>5.300</td></tr>
<tr><td>20</td><td><30</td><td>4.400</td></tr>
<tr><td>10</td><td><20</td><td>3.800</td></tr>
<tr><td>0</td><td><10</td><td>3.300</td></tr>
</table></td></tr>
<tr><td>Finantzatzen duen erakundea</td><td>Energiaren Euskal Erakundea (EEE)</td></tr>
<tr><td>Guztizko aurrekontua</td><td>5.000.000€</td></tr>
<tr><td>Dokumentazioa</td><td>https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Programa-de-ayudas-a-la-realizacion-de-auditorias?lang=eu-es<br><br>EBAZPENA, 2023ko apirilaren 5ekoa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, industriaren eta hirugarren sektorearen ETEetan energia-ikuskaritza integralak egiteko laguntzen programaren oinarri arautzaileak onetsi, deitu eta argitaratzen dituena</td></tr>
</table>

## 2. BERRESKURATZE, ERALDATE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN OSTATUKO TURISMO-ENPRESEN ENERGIA-ERAGINKORTASUN PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN PROGRAMA

| | |
|---|---|
| **Helburua** | Ostatu-establezimenduetarako eraikinen berrikuntza bizkortzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-enpresen lehiakortasuna handitzea, energia-eraginkortasunaren eta ekonomia zirkularraren arloan estandar handiak txertatuta, karbono-aztarna eta energia-kostuak murrizteko. |
| **Egoera** | Irekita |
| **Indarraldi epea** | 2022/11/24-2024/12/31 |
| **Onuradunak** | • EAEn kokatutako turismo-ostaturako eraikinen jabe diren pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.<br>• EAEn kokatutako turismo-ostaturako eraikinen enpresa ustiatzaile, errentari edo emakidadunak, baldintza hori indarrean dagoen kontratu baten bidez egiaztatzen badute |
| **Lagunduko diren jarduerak** | Ondoren aipatzen diren tipologietako baten edo batzuen barruan sartzen diren jarduerek jaso ahal izango dute diru-laguntza, bai EAEko lurraldean dauden eraikin osoak (A aukera) hartzen dituzten turismo-ostatuetako establezimenduetan, bai eraikin bat partzialki okupatzen duenean (B aukera):<br>• 1. tipologia – **Inguratzaile termikoaren** energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduerak.<br>• 2. tipologia – **Berokuntza-, klimatizazio-, hozte-, aireztapen- eta ur bero sanitarioko instalazio** termikoetan energia-eraginkortasuna hobetzeko eta energia berriztagarriak erabiltzeko jarduerak; hainbat eraikinetako turismo guneetarako energia berriztagarrien eta/edo hondar-beroaren bidez elikatutako bero- eta hotz-sareen instalazioa barne.<br>• 3. tipologia – **Argiztapen-instalazioen** energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduerak.<br>Laguntza eskatzen den jarduketek berriztagarria ez den energia primarioaren kontsumoa % 30 murriztea lortu eta justifikatu beharko dute, abiapuntuko egoerarekin alderatuta. |
| **Laguntzaren ezaugarriak** | • Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak<br>• Jarduketak nahitaez egin beharko dira turismo-ostaturako diren eta nahitaez Euskadiko Turismo Enpresa eta Jardueren Erregistroan (REATE) inskribatuta dauden eraikinetan edo eraikin multzo edo konplexuetan<br>• Emandako laguntzak beste edozein laguntza publikorekin metatu ahal izan dira, baldin eta kostu finantzagarri identifikagarri desberdinei badagozkie.<br>• Hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era irits daiteke. |
| **Laguntza kopurua** | Onuradun batek, guztira eta gehienez, 200.000 euro jaso ditzake espediente bakoitzeko, eta, laguntza programaren konputuan, 300.000 euro onuradun bakoitzeko. |

| Jarduera-tipologia (%/kostu hautagarriaren aldean) | Oinarrizko laguntza | | Laguntza gehigarria | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Portzentaje gehigarria (energia-eraginkortasuna) | | | Portzentaje gehigarria (jarduketa integratua) |
| | A aukera | B aukera | Azken kalifikazioa A | Azken kalifikazioa B | 2 letra edo gehiago gehitzea | |
| 1. mota. Inguratzaile termikoaren eraginkortasun energetikoa hobetzea. | % 50 | % 40 | % 15 | % 10 | % 5 | % 25 |
| 2. mota. Instalazio termikoen eraginkortasun energetikoa hobetzea. | % 40 | % 30 | % 10 | % 5 | % 0 | % 20 (2.1 eta 2.2 azpi-tipologiak), % 15 (2.3 azpi-tipologiak) eta % 5 (2.4 eta 2.5 azpi-tipologiak) |
| 3. mota. Argiztapen-instalazioen eraginkortasun energetikoa hobetzea. | % 20 | % 20 | % 10 | % 5 | % 0 | % 5 |

| | |
|---|---|
| **Finantzatzen duen erakundea** | Energiaren Euskal Erakundea (EEE) |
| **Guztizko aurrekontua** | 3.800.203,68 € |
| **Dokumentazioa** | https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Programa-de-ayudas-a-Proyectos-de-Eficiencia-Energ?lang=eu-es<br><br>EBAZPENA, 2022ko azaroaren 23koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena; honen bidez, Berreskuratze-, Eraldaketa- eta Erresilientzia-planeko turismo-enpresen energia-eraginkortasuneko proiektuetarako laguntzen programaren oinarri arautzaileak onetsi, deitu eta argitaratzen dira. |

<table>
<tr><th colspan="2">3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERRONKA DEMOGRAFIKOKO UDALERRIETAN DAUDEN ERAIKINETARAKO BIRGAITZE ENERGETIKOKO PROGRAMA (PREE 5000 PROGRAMA)</th></tr>
<tr><td>Helburua</td><td>Lehendik dauden eraikinak eraberritzeko jarduerak egitea, horien erabilera eta titularren izaera juridikoa edozein izanik ere, azken energia-kontsumoa eta karbono dioxidoaren emisioak murrizten laguntzeko, energia aurreztuz, energia-eraginkortasuna hobetuz eta energia berriztagarriak aprobetxatuz.</td></tr>
<tr><td>Egoera</td><td>Irekita</td></tr>
<tr><td>Indarraldi epea</td><td>2022/01/13-2023/12/31</td></tr>
<tr><td>Onuradunak</td><td><ul>
<li>Edozein erabileratarako eraikinen jabe diren pertsona fisiko edo juridiko pribatu edo publikoak.</li>
<li>Etxebizitza-erabilerako bizitegi-eraikinetako jabeen erkidegoak eta jabeen erkidegoen elkarteak.</li>
<li>Elkartutako eraikinen jabe diren jabeak.</li>
<li>Eraikinen enpresa ustiatzaileak, errentariak edo emakidadunak</li>
<li>Energia-zerbitzuen enpresak, edo energia-zerbitzuen hornitzaileak</li>
<li>Toki-erakundeak</li>
<li>Energia berriztagarrien komunitateak eta herritarren energia-komunitateak</li>
</ul>
Programa honetan aurreikusitako jarduketa diruz lagungarriak, nahitaez EAEko erronka demografikoko udalerrietako edozeinetan kokatutako eraikin edo etxebizitzetan gauzatu beharko da (erronka demografikoko udalerriak izango dira 5.000 biztanlerainoko udalerri ez-hiritarra, baita 20.000 biztanlerainoko udalerri ez-hiritarrak ere, baldin eta beren biztanle-entitate berezi guztiek, gehienez, 5.000 biztanle badituzte.</td></tr>
<tr><td>Lagunduko diren jarduerak</td><td>EAEn dauden eraikin osoetako jarduketak, honako erabilera hauetako batekoak edo batzuetakoak:
<ul>
<li>Familia bakarreko etxebizitza eraikinak</li>
<li>Etxebizitzako bizitegi kolektiboko tipologiako eraikinak</li>
<li>Beste edozein erailerako eraikinak (administratiboak, sanitarioa, irakaskuntza, kultura…)</li>
</ul>
Honako hauek izango dira diruz lagunduko direnak:
<ul>
<li>Inguratzaile termikoaren energia-efizientzia hobetzea.</li>
<li>Energia-efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera berokuntzako, klimatizazioko, hozketako, aireztapeneko eta etxeko ur beroko instalazio termikoetan.</li>
<li>Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzea.</li>
</ul></td></tr>
<tr><td>Laguntzaren ezaugarriak</td><td><ul>
<li>Laguntza jasotzeko hainbat eskakizun bete beharko dira eraikinen adinari buruzkoak, hondakinei buruzkoak, energia kontsumoa gutxitzeari buruzkoak…</li>
</ul></td></tr>
<tr><td>Laguntza kopurua</td><td>Diruz lagun daitezkeen jarduera mota guztiei aplika dakiekeen gutxieneko kostu hautagarria 10.000 eurokoa da laguntza-eskaera bakoitzeko.
<table>
<tr><th>Jarduketa tipologiak (%-a kostu hautagarriaren arabera)</th><th>Oinarrizko Laguntza</th></tr>
<tr><td>1. mota Inguratzaile termikoaren energia-efizientzia hobetzea.</td><td>% 50</td></tr>
<tr><td>2. mota Instalazio termikoen energia-efizientziaren hobekuntza.</td><td>% 40</td></tr>
<tr><td>3. mota. Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzea.</td><td>% 20</td></tr>
</table>
Gehieneko laguntza laguntzaren azken hartzaile bakoitzeko 250.000 euro izango da.</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| **Finantzatzen duen erakundea** | Energiaren Euskal Erakundea (EEE) |
| **Guztizko aurrekontua** | 7.937.459,73 € |
| **Dokumentazioa** | https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Rehabilitacion-energetica-en-edificios-existen-(1)?lang=eu-es<br><br>EBAZPENA, 2021eko urriaren 18koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen, deitzen eta argitaratzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko dirulaguntza-programa (PREE 5000) arautzen duten oinarriak. Programa hori Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Hiriko Birgaitzeko eta Berroneratzeko Planaren Birgaitzeko eta erronka demografikoko programan sartuta dago.<br><br>EBAZPENA, 2022ko apirilaren 20koa, dirulaguntza-programa (PREE 5000) arautzen duten oinarriak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituen 2021eko urriaren 18ko Ebazpena aldatzen duena.<br><br>EBAZPENA, 2023ko martxoaren 23koa, PREE 5000 Programaren aurrekontuko diru-horniduraren areagotzeaz |

| 4. ETXEBIZITZEN ETA ERAIKINEN BIRGAITZEAREN, IRISGARRITASUNAREN ETA ENERGIA-EFIZIENTZIAREN ARLOKO JARDUKETA BABESGARRIETARAKO FINANTZA-NEURRIAK | |
|---|---|
| **Helburua** | Finantza-neurriak nagusiki bizitegi-erabilera duten eraikinen eta haien elementu pribatiboen kontserbaziorako, kalitatea, irisgarritasuna eta jasangarritasuna (**energia-efizientzia barne**) hobetzeko **esku-hartu eta birgaitzeko obrak exekutatzea**. |
| **Egoera** | Irekita |
| **Indarraldi epea** | 2021/09/09-Mugarik gabe |
| **Onuradunak** | **1.lerroa:** Birgaitzearen titulartzat eta finantza-neurrien onuraduntzat hartuko da pertsona fisikoa edo juridikoa, pribatua edo publikoa, ondasun-erkidegoa edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereizi, nortasun juridikorik ez izan arren, jabe, errentari, gozamendun edo eskubide errealen titular edo familia bakarreko etxebizitza edo birgaitu beharreko eraikinaren elementu pribatiboak erabiltzeko eta aprobetxatzeko legitimatzen duen beste edozein eskubideren titular dena.<br>**2. lerroa**:<br>• Pertsona fisiko edo juridikoak, pribatuak edo publikoak, ondasun-erkidegoak edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereizikoak.<br>• Jabeen erkidegoak, jabeen erkidegoen elkarteak eta etxebizitza-kooperatibak.<br>• **Eraikuntza- eta zerbitzu-enpresak**, eraikinen edo haien zati baten errentariak edo emakidadunak, birgaitze-jarduketak egiteko ahalmena badute eta eraikinaren jabearekin indarrean dagoen kontratuaren bidez edo horretarako emandako administrazio-ebazpenaren bidez egiaztatzen badute.<br>**3. lerroa:**<br>• Esku-hartze proposamenen eremuko jabeen erkidegoak.<br>• Udalak, toki-erakunde txikiak, etxebizitza-sozietate publikoak eta etxebizitzen sustatzaile publikoak.<br>• **Eraikuntza-enpresek, energia-zerbitzuetako enpresek**, eraikinen edo horien zati bateko errentariek edo emakidadunek birgaitzeko jarduketei ekiteko ahalmena badute.<br>• Eraikineko etxebizitzaren baten jabe, errentari, gozamendun edo eskubide errealen titular diren pertsonak edo etxebizitza hori erabiltzeko eta aprobetxatzeko legitimatzen dituen beste edozein eskubide duten pertsonak irisgarritasuna sustatzeko dirulaguntza-lerro bereziaren onuradun izan ahal izango dira, 1. eta 2. lerroetako norbanakoen baldintza berberetan, mailegu kualifikatuen osagai espezifikoa barne.<br>• Jarduketa babesgarrietan edozein tituluren bidez esku hartzen duten enpresa, erakunde edo sozietateak, onuradun izan ahal izateaz gain, artikulu honetan aipatutako onuradunei emandako finantza-neurrien kudeaketan erakunde laguntzaile ere izan daitezke. |
| **Lagunduko diren jarduerak** | **1.lerroa:** partikularren obretarako finantza-neurriak. Birgaitzeko obrak edo esku-hartzeak familia bakarreko etxebizitzetan edo jabetza horizontaleko edo higiezin-konplexu pribatuko eraikinen elementu pribatiboetan egiten direnean, bai etxebizitzetan, bai etxebizitza-erabilera duten lokaletan. Jarduketak honako hauek izan daitezke:<br>• 1. mota. Kontserbazio- eta bizigarritasun-obrak.<br>• 2. mota. Energia-efizientzia hobetzeko obrak.<br>• 3. mota. Irisgarritasuna hobetzeko obrak.<br>• 4. mota. Eraikuntzaren akabera orokorra eraikuntza onaren printzipioetara egokitzeko obrak.<br>**2. lerroa**: erkidegoen obretarako finantza-neurriak. Birgaitzeko obrak edo esku-hartzeak bi familiako etxebizitzen edo etxebizitza atxikien eraikuntzako elementu komunetan, instalazioetan edo zerbitzu komunetan eta nagusiki etxebizitza-erabilera duten bizitegi kolektiboko eraikinetan egiten direnean, jabetza horizontaleko, higiezin-konplexu pribatuko edo titulartasun bakarreko araubidean. Jarduketak honako hauek izan daitezke:<br>• 1. mota. Kontserbazio- eta bizigarritasun-obrak.<br>• 2. mota. Energia-efizientzia hobetzeko obrak.<br>• 3. mota. Irisgarritasuna hobetzeko obrak. |

<table>
<tr><td></td><td>3. lerroa: birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obretarako finantza-neurriak. Birgaitze-obrek energia-efizientzian, irisgarritasunean eta suteetatik babesteko segurtasunean batera eta aldi berean esku hartzeko proiektu baten berezko irismen globala dutenean, gutxienez, etxebizitza-erabilera nagusia duen bizitegi-tipologia kolektiboko eraikin oso bat denean. Era berean, esku hartzeko proiektuek etxebizitzen kanpoko bizigarritasuna hobetzeko jarduketak jaso ahal izango dituzte.</td></tr>
<tr><td>Laguntzaren ezaugarriak</td><td><ul><li>Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak edo laguntzak.</li><li>Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak mailegu kualifikatuen interes-tasaren zati bat subsidiatzea.</li><li>Agindu honetan araut但tako finantza-neurriak guztiz bateragarriak dira foru-ogasunek etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko jarduketei dagokienez ezartzen dituzten kenkariekin, hobariekin edo beste edozein zerga-onurarekin.</li></ul></td></tr>
<tr><td>Laguntza kopurua</td><td>Birgaitze Integratua (I) edo Isolatua (A)<br><table>
<tr><th>Diru-sarrera haztatuak</th><th>Kide kopurua</th><th>1. motako obrak</th><th>2. motako obrak</th><th>3. motako obrak</th><th>4. motako obrak</th></tr>
<tr><td rowspan="2">9.000 euro arte</td><td>3 edo gutxiago</td><td>I: % 75<br>A: % 65</td><td>I: % 75<br>A: % 70</td><td>I: % 80<br>A: % 70</td><td>I: % 60<br>A: % 50</td></tr>
<tr><td>3 baino gehiago</td><td>I: % 80<br>A: % 70</td><td>I: % 80<br>U: % 75</td><td>I: % 85<br>U: % 75</td><td>I: % 65<br>A: % 55</td></tr>
<tr><td rowspan="2">9.001 eurotik 15.000 eurora</td><td>3 edo gutxiago</td><td>I: % 70<br>A: % 60</td><td>I: % 75<br>A: % 65</td><td>I: % 75<br>A: % 65</td><td>I: % 65<br>A: % 55</td></tr>
<tr><td>3 baino gehiago</td><td>I: % 75<br>A: % 65</td><td>I: % 80<br>A: % 70</td><td>I: % 80<br>A: % 70</td><td>I: % 60<br>A: % 50</td></tr>
<tr><td rowspan="2">15.001 eta 25.000 euro bitartean</td><td>3 edo gutxiago</td><td>I: % 60<br>A: % 50</td><td>I: % 65<br>A: % 55</td><td>I: % 65<br>A: % 55</td><td>I: % 55<br>A: % 45</td></tr>
<tr><td>3 baino gehiago</td><td>I: % 65<br>A: % 55</td><td>I: % 70<br>A: % 60</td><td>I: % 70<br>A: % 60</td><td>I: % 60<br>A: % 50</td></tr>
<tr><td>Gehienez</td><td></td><td>I: 7.500 euro<br>A: 5.500 euro</td><td>I: 9.500 euro<br>A: 7.500 euro</td><td>I: 10.000 euro<br>8.000 euro</td><td>I: 5.000 euro<br>3.000 euro</td></tr>
</table>
1. taula: laguntzen ehunekoak eta mugak partikularren obretan.</td></tr>
<tr><td>Finantzatzen duen erakundea</td><td>Eusko Jaurlaritza. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.</td></tr>
<tr><td>Dokumentazioa</td><td>AGINDUA, 2021eko uztailaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa.</td></tr>
</table>

| 5. INDUSTRIA-SEKTOREKO ETEETAN ETA ENPRESA HANDIETAN EFIZIENTZIA ENERGETIKORAKO JARDUKETETARAKO LAGUNTZAK | |
|---|---|
| **Helburua** | Industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikoko jarduketak burutzea, karbono dioxidoaren emisioak eta azken energia-kontsumoa murriztuko dituzten jarduketak suspertzeko eta sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan eraginkortasun energetikoa hobetuz. |
| **Egoera** | Irekita |
| **Indarraldi epea** | 2019/08/29-2024/06/30 |
| **Onuradunak** | Industria-sektoreko ETE edo enpresa handitzat hartzen diren enpresak, baldin eta honako hauetako baten barnekoa bada EJSN-2009 sailkapenaren arabera:<br>07 – Mineral metalikoen erauzketa.<br>08 – Beste erauzketa-industria batzuk.<br>09 – Erauzketa-industriari laguntzeko jarduerak.<br>10 – Elikagaien industria.<br>11 – Edarien fabrikazioa.<br>13 – Ehunen industria.<br>14 – Jantzigintza.<br>15 – Larrugintza eta oinetakogintza.<br>16 – Zuraren eta kortxoaren industria (altzariak izan ezik); saskigintza eta espartzugintza.<br>17 – Papergintza.<br>18 – Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa.<br>19 – Kokeriak eta petrolio-finketa.<br>20 – Industria kimikoa.<br>21 – Farmazia-produktuen fabrikazioa.<br>22 – Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa.<br>23 – Beste mea-produktu ez-metalikoen fabrikazioa.<br>24 – Metalurgia; Burdinaren, altzairuaren eta ferroaleazioaren fabrikazioa.<br>25 – Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik.<br>26 – Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa.<br>27 – Material eta tresneria elektrikoen fabrikazioa. 28 – Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa.<br>29 – Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa.<br>30 – Garraiorako bestelako materiala fabrikatzea.<br>31 – Altzarigintza.<br>32 – Beste manufaktura-industria batzuk.<br>33 – Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa.<br>35 – Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntza.<br>36 – Uraren bilketa, arazketa eta banaketa.<br>37 – Hondakin-uren bilketa eta tratamendua.<br>38 – Hondakinak biltzea, tratatzea eta deuseztatzea; balorizazioa.<br>39 – Deskutsatzeko jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk.<br>Zerbitzu energetikoen enpresak, mota horretako zerbitzuak ematen dituzten erakundeen definiziorik zabalena hartuta. Zerbitzu energetikoen hornitzaile gisa erregistratuta egon behar dute enpresek (www.idae.es webgunean eskuragarri), zerbitzu energetikoetarako kontratu baten arabera jarduteaz gain, a) letran bildutako enpresetako baten laguntzarekin eta, nolanahi ere, programa honetan aurreikusitako laguntzak proiektua gauzatuko den enpresan izan behar du eragina. |

| | |
|---|---|
| **Lagunduko diren jarduerak** | • **1. jarduketa:** Teknologia hobetzea ekipo eta prozesu industrialetan: Ordezkapen inbertsioak sustatu nahi dira, ekipoak, instalazioak eta sistema osagarri energia-kontsumitzaileak efizientzia energetiko handiko teknologiak edota Eskuragarri dagoen Teknologiarik Onena baliatzen dituzten beste batzuekin ordezteko inbertsioak, instalazio industrialen azken energia-kontsumoa eta karbono dioxidoaren emisioak murrizteko.<br>• **2. jarduketa:** Energia-kontsumitzaile handiak ez diren enpresetan kudeaketa energetikoa gauzatzeko sistema ziurtatuak ezartzea: Kudeaketa energetikorako sistemak ezartzeko inbertsioak sustatu nahi dira, instalazio industrialen azken energia-kontsumoa eta karbono dioxidoaren emisioak murrizteko.<br>Laguntzaren xede diren jarduerak gauzatzeko gehieneko epea **24 hilabetekoa izango da, laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik** zenbatzen hasita. |
| **Laguntzaren ezaugarriak** | • Onuradun bakoitzak jasoko duen laguntzak ezingo du gainditu, aurkeztutako eskabideen multzoarengatik, 6.000.000 euroko guztizko zenbatekoa.<br>• Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, eskabide bakoitzerako, honako hiru hauetako txikiena izango da:<br>  • Proiekturako aukeratu daitekeen inbertsioaren % 30, jarduera-tipologia bakoitzerako adierazten diren muga bereziekin.<br>  • Diruz lagundu daitekeen kostuaren gainean aplikatuko diren ehunekoak hauek izango dira: % 30 enpresa handietarako, % 40 enpresa ertainetarako eta % 50 enpresa txikietarako.<br>  • c) Eskabide bakoitzerako, eta jarduketa-tipologiaren arabera, gehieneko laguntza-zenbatekoa 2.000.000 eurokoa izango da 1. tipologiarako («Teknologia hobetzea ekipo eta prozesu industrialetan») eta 30.000 eurokoa, berriz, 2. tipologiako jarduketetarako («Energia-kontsumitzaile handiak ez diren enpresetan kudeaketa energetikoa gauzatzeko sistemak ezartzea»). |
| **Finantzatzen duen erakundea** | Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila |
| **Dokumentazioa** | https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2019/enpresetarako-efizientzia-energetikorako-dirulaguntzak-2019-20/web01-tramite/eu/<br><br>EBAZPENA, 2023ko ekainaren 21ekoa, Industriaren eta Energia Trantsizioaren zuzendariarena, industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako laguntzen programaren indarraldia luzatu dela argitara emateko dena.<br><br>AGINDUA, 2022ko uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez hirugarrenez aldatzen baita 2019ko uztailaren 30eko Agindua<br><br>AGINDUA, 2021eko ekainaren 22koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita 2019ko uztailaren 30eko Agindua.<br><br>AGINDUA, 2020ko ekainaren 23koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez agindu hau aldatzen eta beste epe bat irekitzen baita: Agindua, 2019ko uztailaren 30ekoa.<br><br>AGINDUA, 2019ko uztailaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira, 2019ko eta 2020ko ekitaldietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako jarduketetarako laguntzen deialdiaren oinarriak. |

<table>
<tr><th colspan="2">1. EKONOMIAREN HAINBAT SEKTORETAN ENERGIA BERRIZTAGARRI TERMIKOEN INSTALAZIOAK EZARTZEKO PIZGARRI-PROGRAMAK, SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN</th></tr>
<tr><td>Helburua</td><td>• 1. pizgarri-programa: Industriako, nekazaritza eta abeltzaintzako, zerbitzuetako, eta ekonomiaren beste zerbitzu batzuetako —bizitegi-sektorea barne— sektoreetan energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea.<br>• 2. pizgarri-programa: Sektore publikoko bizitegitarako ez diren eraikin, establezimendu eta azpiegituretan energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea.</td></tr>
<tr><td>Egoera</td><td>Irekita</td></tr>
<tr><td>Indarraldi epea</td><td>2022/03/24-2023/12/31</td></tr>
<tr><td>Onuradunak</td><td>1. pizgarri-programa:<br>• Pertsona fisikoak<br>• Pertsona juridikoak<br>• Administrazio publikoen arteko edozeinetako sektore publiko instituzionaleko edozein entitate, baita zuzenbide pribatuko entitateak edo irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak ere.<br>• Aurreko hiru puntuetako figuretako edozeinetako talde, elkarte, partzuergo zein beste edozein kolaborazio modutako erakundeak, nortasun juridikoarekin edo gabe.<br>2. pizgarri-programa:<br>• Toki-entitateak, edo aurrekoez bestelako beste edozein tokiko edo tokiz gaindiko entitate, betiere legez eratu bada eta nortasun juridiko propioa badu.<br>• Administrazio publikoen arteko edozeinetako sektore publiko instituzionaleko edozein entitate, baita zuzenbide pribatuko entitateak edo irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak ere.<br>• Aurreko puntuko figuretako edozeinetako talde, elkarte, partzuergo zein beste edozein kolaborazio modutako erakundeak, nortasun juridikoarekin edo gabe</td></tr>
<tr><td>Lagunduko diren jarduerak</td><td>• Eraikinetan hotza eta/edo beroa sortzeko aplikazio termikoak<br>• Tenperatura baxuko, ertaineko eta altuko aplikazioak produkzio-prozesuetan edo beste aplikazio termiko batzuetan<br>• Eguzki-energia termikoa<br>• Geotermia eta inguruneko Energia (aerotermia eta hidrotermia)<br>• Biomasa<br>• Hotzeko eta/edo beroko auzo-mikrosareak</td></tr>
<tr><td>Laguntzaren ezaugarriak</td><td>• Programa honen esparruan emandako laguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio publikoren beste programa edo tresna batzuen beste edozein laguntzarekin.<br>• Hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa subentzionatutako jarduketaren zenbatekoaren % 100 izan daiteke</td></tr>
<tr><td>Laguntza kopurua</td><td>Enpresa eta proiektu bati emandako laguntzek ezin izango dute inoiz 15 milioi euroko zenbatekoa gainditu.<br><table><tr><th></th><th>% oinarrizko laguntza enpresa handia</th><th>% oinarrizko laguntza enpresa ertaina</th><th>% oinarrizko laguntza enpresa txikia</th></tr><tr><td>1. pizgarri-programa</td><td>% 35</td><td>% 40</td><td>% 45</td></tr></table>2. pizgarri-programarako, kostu subentzionagarriaren gaineko portzentajezko 70 puntu izango da energia berriztagarri termikoko instalazioari eman beharreko zenbatekoa.</td></tr>
<tr><td>Finantzatzen duen erakundea</td><td>Energiaren Euskal Erakundea (EEE)</td></tr>
<tr><td>Guztizko aurrekontua</td><td>21.216.493 €</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| | • 1.pizgarri-programa: 9.571.394€<br>• 2.pizgarri-programa: 11.645.099€ |
| **Dokumentazioa** | https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Programas-de-incentivos-para-la-implantacion-de-in?lang=eu-es<br><br>EBAZPENA, 2022ko martxoaren 8koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, ekonomiaren hainbat sektoretan energia termiko berriztagarrien instalazioak ezartzeko pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.<br><br>EBAZPENA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2022ko martxoaren 8ko Ebazpena aldatzeko dena.<br><br>EBAZPENA, 2023ko urriaren 2koa, honen bidez, programaren deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak gehitzea erabaki da<br><br>EBAZPENA, 2023ko azaroaren 29koa, honen bidez, programaren deialdia finantzatzeko balibaide ekonomikoak bigarrenez gehitzea erabaki da. |

<table>
<tr><th colspan="2">2. ENERGIA-ITURRI BERRIZTAGARRIEN BIDEZKO AUTOKONTSUMOARI ETA BILTEGIRATZEARI ETA BIZITEGI-SEKTOREAN SISTEMA TERMIKO BERRIZTAGARRIAK EZARTZEARI LOTUTAKO PIZGARRI-PROGRAMA</th></tr>
<tr><td>Helburua</td><td>Pizgarri programak, zera egikaritzeko, batetik, hainbat sektoretako energia-iturri berriztagarrien bidezko (eguzki-energia fotovoltaikoa eta eolikoa) autokontsumo- eta biltegiratze-instalazioak, eta, bestetik, sistema termiko berriztagarriak (biomasa, aerotermia, geotermia, eguzki-energia termikoa), bizitegi-sektorean, eta jabetza publikoko etxebizitzetan eta hirugarren sektorean soilik.</td></tr>
<tr><td>Egoera</td><td>Irekita</td></tr>
<tr><td>Indarraldi epea</td><td>2021/11/11-2023/12/31</td></tr>
<tr><td>Onuradunak</td><td><u>1, 2 eta 3. pizgarri-programa:</u><br>• Pertsona juridikoak, pertsona fisikoak eta aurreko figuretako taldeak, nortasun juridikoarekin edo gabe, merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoa egiten dutenak, besteak beste:<br>1. Industrialdeen kudeatzaileak, publikoak zein pribatuak.<br>2. Energiaren arloko jarduketen enpresa ustiatzaileak, errentariak edo emakidadunak.<br>3. Energia-zerbitzuetako enpresak<br>• Energia berriztagarrien komunitateak eta herritarren energia-komunitateak<br><br>Horiez gain:<br>• 1. pizgarrien programa: Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren barruan (hemendik aurrera, EJSN) H, I, J, K, L M, N, O, P, Q, R edo S taldeetako enpresak. Betiere, ez badira administrazio publikoak edo irabazi-asmorik gabeko erakunde edo erakunde pribatuak.<br>• 2. pizgarrien programa: A01 taldeari dagokion EJSN baten barruan jardun beharko dute, 017an izan ezik, edota B, C, D, E edo F taldeei dagokien EJSN baten barruan. Sektore publiko instituzionala ere programa honen azken hartzaileak izan daiteke.<br>• 3. pizgarrien programaren azken hartzaileek aurreko paragrafoetan ezarritako taldeetako bati dagokion EJSN baten barruan egin beharko dute beren jarduera.<br><u>4 eta 5. pizgarri-programa:</u><br>• Jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoak<br>• Toki-erakundeak eta sektore publiko instituzionala<br>• Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoak.<br>• Jabeen erkidegoak<br>• Energia berriztagarrien komunitateak eta herritarren energia-komunitateak<br><u>6. pizgarri-programa:</u><br>• Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituzten jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoak.<br>• Irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuak, edo jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona juridikoak<br>• Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoak.<br>• Jabeen erkidegoak<br>• Edozein herri-administraziotako toki-erakundeak eta sektore publiko instituzionalekoak.</td></tr>
<tr><td>Lagunduko diren jarduerak</td><td>• 1. pizgarri-programa: Zerbitzu-sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegiratzearekin edo biltegiratzerik gabe.<br>• 2. pizgarri-programa: Ekonomiaren beste produkzio-sektore batzuetan, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegiratzearekin edo biltegiratzerik gabe.</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| | • **3. pizgarri-programa:** Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegiratzea txertatzea.<br>• **4. pizgarri-programa:** Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegiratzearekin edo biltegiratzerik gabe.<br>• **5. pizgarri-programa:** Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegiratzea txertatzea.<br>• **6. pizgarri-programa:** Bizitegi-sektorean energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea. |
| **Laguntzaren ezaugarriak** | • Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak.<br>• Minimis baldintzari lotutako laguntzak.<br>• Ematen diren pizgarrien programetako laguntzak bateraezinak izango dira helburu bererako eman daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin.<br>• Hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era irits daiteke. |
| **Laguntza kopurua** | • 1, 2 eta 3. pizgarri-programetan laguntzak kalkulatuko dira kostu subentzionagarrien guztizkoaren gaineko ehuneko baten arabera.<br>• 4, 5 eta 6.pizgarri-programetan laguntzak zenbateko finko unitariotan edo “modulutan” emango dira, kostu subentzionagarrien zati bat estaliko dutenak<br>• Enpresa eta proiektu bati emandako laguntzek ezin izango dute inoiz 15 milioi euroko zenbatekoa gainditu. |
| **Finantzatzen duen erakundea** | Energiaren Euskal Erakundea (EEE) |
| **Guztizko aurrekontua** | 106.765.574,23 €<br>• 1. pizgarri-programa: 15.294.559,90 €<br>• 2. pizgarri-programa: 20.417.222,40 €<br>• 3. pizgarri-programa: 3.219.188,47 €<br>• 4. pizgarri-programa: 54.279.802.12 €<br>• 5. pizgarri-programa: 339.405 €<br>• 6. pizgarri-programa: 13.215.396,34 € |
| **Dokumentazioa** | https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Programa-de-incentivos-ligados-al-autoconsumo-y-al?lang=eu-es<br><br>EBAZPENA, 2021eko irailaren 22koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. (Errege Dekretua 477/2021, ekainaren 29a).<br><br>EBAZPENA, 2022ko apirilaren 20koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2021eko irailaren 22ko Ebazpena aldatzen duena.<br><br>EBAZPENA, 2022ko ekainaren 29koa, EEEko zuzendari nagusiarena, 2021eko irailaren 22ko Ebazpena bigarrenez aldatzen duena. Ebazpen horren bidez, Programaren oinarri arautzaileak onartu, deitu eta argitaratu ziren, PRTR programaren esparruan. (377/2022 ED, maiatzaren 17koa).<br><br>EBAZPENA, 2022ko uztailaren 8koa, EEEko zuzendari nagusiarena, programaren aurrekontu-zuzkidura aldatzeari ekiten diona. |

| | |
|---|---|
| | EBAZPENA, 2023ko apirilaren 5ekoa, EEEko zuzendari nagusiarena, PRTRren esparruan programaren aurrekontu hedatuari dagokion pizgarri-programa bakoitzari dagokion zenbatekoa berriro esleitzen duena.<br><br>EBAZPENA, 2023ko urriaren 11koa, honen bidez, programaren deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak gehitzea erabaki da.<br><br>EBAZPENA, 2023ko azaroaren 30an, honen bidez, programaren deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak gehitzea erabaki da. |

## ENERGIA KOMUNITATEAK

Ez dago diru laguntzarik indarrean

## KLIMA ALDAKETA (karbono aztarna eta ekonomia zirkularra)

Ez dago diru laguntzarik indarrean

<table>
<tr><th colspan="2">1. MOVES III PROGRAMA 2021-2023 BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN</th></tr>
<tr><td>Helburua</td><td>Oinarrien xedea mugikortasun elektrikoa sustatzeko bi programa onartzea da, biak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparru orokorraren esparruan. Honako hauek dira:<br>• 1.Pizgarri-programa - Ibilgailu elektrikoen erosketa sustatzea<br>• 2.Pizgarri-programa - Kargatze-azpiegiturak zabaltzen laguntzea</td></tr>
<tr><td>Egoera</td><td>Irekita</td></tr>
<tr><td>Indarraldi epea</td><td>2021/09/28-2023/12/31</td></tr>
<tr><td>Onuradunak</td><td>• Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsona fisikoak, Foru Ogasunetako Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan, edo, bidezko bada, Zerga Administrazioko Estatu Agentzian alta emanda egon beharko dutenak (mota horretako onuradunek MINIMIS baldintza bete behar dute).<br>• Adin nagusikoak diren pertsona fisikoak, egoitza fiskala Espainian izanik aurreko idatz-zatian bilduta ez daudenak; desgaitasuna dutenak, aldiz, adingabeak izan daitezke.<br>• Jabeen erkidegoak.<br>• Eskaera aurkezteko unean Espainian legez eratuta dauden pertsona juridikoak, eta beste erakunde batzuk, nortasun juridikoa izanik edo izan gabe, A, B, C, D, E, F, G, J, R edo W letrez hasten den identifikazio fiskaleko zenbakia dutenak. V letraz hasten den IFZ duten Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateak edo Poligonoak Kontserbatzeko Erakundeak ere hautagarriak izango dira.<br>• Toki erakundeak.</td></tr>
<tr><td>Lagunduko diren jarduerak</td><td><u>1. pizgarri-programa: Ibilgailu elektriko «entxufagarrien» eta erregai-pila bidezkoen erosketa.</u><br>Laguntzaren azken hartzailearen izenean Espainian lehen aldiz matrikulatutako ibilgailu berriak zuzenean erostea edo leasing finantzarioko finantzaketa-eragiketen edo «renting» bidezko errentamenduaren bidez eskuratzea (leasing operatiboa). Honako ibilgailu hauetarako:<br>• M1 turismoak<br>• N1 kamioi arinak edo furgonetak<br>• L6e kuadriziklo arinak<br>• L7e kuadriziklo astunak<br>• L3e, L4e, L5e motozikletak<br><u>2. pizgarri-programa: Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea</u><br>• Ibilgailu elektrikoetarako bateriak kargatzeko sistemak jarduketa subentzionagarriak izango dira, zuzenean erosteko modalitatean.<br>• Proiektuaren kostu subentzionagarritzat hartuko dira honako hauek: obra zibila, ingeniaritzako eta obra-zuzendaritzako kostuak, birkargatzeko azpiegituraren beraren kostua, edozein elementu elektriko instalatzea edo eguneratzea, transformadorea barne, banaketa-sarera konektatzeko lanak, ebakidura- eta transformazio-zentroak eta erdi-tentsioko hartunea, beharrezkoak direnak kargatzeko azpiegitura elektrizitatearen tokiko ekoizpen- edo biltegiratze-sarera edo unitatera konektatzeko, lurrak edo errepideak egokitzea, instalazio-kostuak eta lotutako eta beharrezko baimenen kostuak.<br>• Kargatze-azpiegiturak honako erabilera hauek izan ditzake: a) Erabilera pribatua bizitegi-sektorean, familia bakarreko etxebizitzak barne. b) Erabilera publikoa bizitegi-sektoretik kanpo (aparkaleku publikoak, hotelak, merkataritzaguneak, unibertsitateak, ospitaleak, industrialdeak, kiroldegiak, etab.). c) Erabilera pribatua enpresa pribatu eta publikoetako aparkalekuetan, beren ibilgailuei zerbitzua emateko. d) Erabilera pribatua enpresa pribatu eta publikoetako aparkalekuetan, beren langile eta bezeroei zerbitzua emateko. e) Erabilera publikoa bide publikoan, eta hiriko eta hiriarteko bide-ardatzetan. f) Erabilera publikoa errepide-sarean, bereziki, gasolina-zerbitzuguneen azpiegituran.</td></tr>
<tr><td>Laguntzaren ezaugarriak</td><td>• Laguntza-programa honen barruan ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzatzat hartuko dira.</td></tr>
</table>

<table>
<tr>
<td></td>
<td>

- Ematen diren pizgarri-programak bateraezinak izango dira estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk helburu berberarekin emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin.
- Minimis baldintzari lotutako laguntzak.
- Hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era irits daiteke.

</td>
</tr>
<tr>
<td>Laguntza kopurua</td>
<td>

1. pizgarri-programa:

- 5.000 biztanletik beherako udalerrietako biztanleek, erroldatuta daudela egiaztatzen badute eta eskaera erregistratzen denetik gutxienez bi urtez mantentzen badute, laguntza % 10 handituko da.
- **Taxia erabiltzeko** M1 ibilgailuak erosteko, laguntzaren azken hartzailea autonomoa bada, % 10eko laguntza gehigarria izango dute.
- Aurreko paragrafoetan adierazitako % 10eko laguntza gehigarriak ezin dira elkarren artean metatu.
- 2. motako onuradunentzat, deialdi bakoitzeko ibilgailu batek jaso ahal izango du dirulaguntza.
- **Enpresentzat, laguntzaren muga 250 ibilgailukoa izango da** azken hartzaile eta urte bakoitzeko

<table>
<tr><th rowspan="3">Motorizazioa</th><th rowspan="3">Kategoria</th><th rowspan="3">Autonomia funtzionamendu elektrikoko moduan (km)</th><th rowspan="3">Ibilgailuaren salmenta-prezioaren muga (€) BEZa baino lehen</th><th colspan="4">Laguntza (€)</th></tr>
<tr><th colspan="2">Txatar bihurtu gabe</th><th colspan="2">Txatar bihurtzearekin</th></tr>
<tr><th>ETE</th><th>Enpresa Handia</th><th>ETE</th><th>Enpresa Handia</th></tr>
<tr><td>Erregai-pila (FCV, FCHV)</td><td rowspan="3">M1</td><td>–</td><td>–</td><td>2.900</td><td>2.200</td><td>4.000</td><td>3.000</td></tr>
<tr><td rowspan="2">PHEV, EREV, BEV,</td><td>30 baino handiagoa edo berdina eta 90 baino txikiagoa 30 baino handiagoa edo berdina eta 90 baino txikiagoa</td><td rowspan="2">45.000 (53.000 betiere 8 edo 9 plazako BEV ibilgailuentzat).</td><td>1.700</td><td>1.600</td><td>2.300</td><td>2.200</td></tr>
<tr><td>90 baino handiagoa edo berdina</td><td>2.900</td><td>2.200</td><td>4.000</td><td>3.000</td></tr>
<tr><td rowspan="4">PHEV, EREV, BEV, erregai-pila</td><td>N1</td><td rowspan="2">30 baino handiagoa edo berdina</td><td rowspan="3">–</td><td>3.600</td><td>2.900</td><td>5.000</td><td>4.000</td></tr>
<tr><td>L6e</td><td colspan="2">800</td><td colspan="2">1.000</td></tr>
<tr><td>L7e</td><td rowspan="2">70 baino handiagoa edo berdina</td><td colspan="2">1.200</td><td colspan="2">1.500</td></tr>
<tr><td>L3e, L4e, L5e, P ≥ 3kW-rekin</td><td>10.000</td><td>750</td><td>700</td><td>950</td><td>900</td></tr>
</table>

2. pizgarri-programa:

- Diruz lagun daitezkeen kostuen % 20koa izango da eman beharreko laguntza, betiere kargatzeko azpiegiturak sarbide publikoa eta potentzia ≥ 50 kW bada.
- Aurreko paragrafoan aipatutako laguntzak ehuneko 20 puntu gehitu ahal izango dira **enpresa ertainei** emandako laguntzen kasuan, eta ehuneko 30 puntu **enpresa txikiei** emandakoen kasuan.
- Kargatzeko azpiegitura erabilera pribatukoa edo sarbide publikokoa denean, baina 50 kW-tik beherako potentziarekin, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 20 emango da, eta 10 puntu handitu ahal izango da enpresa ertain eta txikiei emandako laguntzen kasuan.
- **Gehienez ere, 800.000 € emango dira enpresako espediente bakoitzeko.**

</td>
</tr>
<tr>
<td>Finantzatzen duen erakundea</td>
<td>Energiaren Euskal Erakundea (EEE)</td>
</tr>
<tr>
<td>Guztizko aurrekontua</td>
<td>

32.936.273,98 €

- 1.Pizgarri-programa: 18.114.950,69€

</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| | • 2.Pizgarri-programa: 14.821.323,29€ |
| **Dokumentazioa** | https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Programa-MOVES-III-2021-2023?lang=eu-es<br><br>EBAZPENA, 2021eko uztailaren 5ekoa, EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituena, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (MOVES III programa)<br><br>EBAZPENA, 2021eko irailaren 21ekoa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2021eko uztailaren 5eko ebazpena aldatzen duena.<br><br>EBAZPENA, 2021eko abenduaren 13koa, EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, bigarrenez aldatzen duena 2021eko uztailaren 5eko Ebazpena.<br><br>EBAZPENA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, hirugarrenez aldatzen duena 2021eko uztailaren 5eko Ebazpena.<br><br>EBAZPENA, 2022ko urriaren 5ekoa, mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programaren deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak handitzea ebazten duena (Moves III programa).<br><br>EBAZPENA, 2023ko ekainaren 23koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena; honen bidez, mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarrien programaren deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoen bigarren gehikuntza erabakitzen da.<br><br>EBAZPENA, 2023ko abenduaren 14koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez seigarrenez aldatzen baita 2021eko uztailaren 5eko Ebazpena. |

| **2. ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ENPRESA PRIBATUEN BIDAIARI ETA SALGAIEN GARRAIO-FLOTAK BAITA GARRAIO PRIBATU OSAGARRIAK EGITEN DITUZTEN ENPRESAK ERE** | |
|---|---|
| **Helburua** | Garraioaren jasangarritasunerako funtsezkoak diren inbertsioak azeleratzea, sektorean hobekuntzak bultzatzeko helburuarekin. Hala, hirietako airea hobetu nahi da eta deskarbonizazioa bultzatu, ibilgailu-flotak berrituz. ibilgailu-flota berritzeko pizgarri-sistema horren diseinuaren helburuak dira salgai eta bidaiarien garraio ibilgailu astunen parkea berritzea, karbono gutxiko energia alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuen propultsiorako teknologiak sar daitezela sustatzea eta automozioaren sektorea bultzatzea eta industria suspertzea. |
| **Egoera** | Irekita |
| **Indarraldi epea** | 2022/03/15-2024/04/30 (4.jarduera izan ezik, 2023/12/30n amaituko baita) |
| **Onuradunak** | Egoitza fiskala EAEn duten eta baimen hauetako baten jabe diren pertsonak fisikoak (autonomoak) eta juridikoak, dagokion baimenak indarrean egon behar duelarik laguntzak eskatzen diren egunean.<br>• Salgaien garraio publikorako baimen bat, 3,5 tn-ko gehieneko masatik gora duten ibilgailuekin edo ibilgailu multzoekin garraiatzeko gaitzen duena, MPDE gakoarekin identifikatuta.<br>• Bidaiariak autobusena eramateko eskatu ahaleko garraio publikorako baimen bat, VDE gakoarekin identifikatuta.<br>• Salgaien garraio pribatu osagarrirako baimen bat, 3,5 tn-ko gehieneko masatik gora duten ibilgailuekin edo ibilgailu multzoekin garraiatzeko gaitzen duena, MPCE gakoarekin identifikatuta. |

| | |
|---|---|
| | • Bidaiarien autobus-garraio pribatu osagarrirako baimen bat, VPCE gakoarekin identifikatuta.<br>• Salgaien garraio publikorako baimen autonomiko bat MDLE gakoarekin. |
| **Lagunduko diren jarduerak** | • **<u>1. jarduera. Txatar bihurtzea:</u>** M2, M3, N2 eta N3 kategorietako ibilgailuak txatar bihurtzea subentzionagarria izango da.<br>• **<u>2. jarduera. Karbono gutxiko energia alternatiboen bidezko ibilgailuak erostea:</u>** M ibilgailuak (A, B, I, II eta III), N2 eta N3 ibilgailuak, HEV, PHEV, REEV, BEV, FCV, FCHV, GNK (ikus oharra) eta GNL (ikus oharra) motorizazioko ibilgailuak erostea subentzionagarria izango da.<br>• **<u>3. jarduera - "Retrofit"-a edo ibilgailuen propultsio modua aldatzea:</u>** Subentzionagarria izango da M2, M3, N2 eta N3 kategorietako ibilgailuak eraldatzea energia primario gisa % 100ean elektrizitatearekin edo hidrogenoarekin (BEV, FCV edo FCHV) propultsatuak izan daitezen, baita ibilgailuak osorik gas-ibilgailu gisa (GNK edo GNL –ikus oharra–) funtzionatu dezan egin beharreko eraldatzea, betiere Euro VI-E estandarra betetzen badu<br>• **<u>4. jarduera. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea:</u>** Subentzionagarria izango da N2, N3, M2 edo M3 motako ibilgailu astunetarako bateriak kargatzeko sistemak instalatzea.<br>• **<u>5. jarduera. Trenbide-autobideetarako erdiatoiak erostea:</u>** Subentzionagarria izango trenbide-autobideetarako erdiatoiak erostea. |
| **Laguntzaren ezaugarriak** | • Laguntza-programa honen barruan ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzatzat hartuko dira.<br>• Ematen diren pizgarri-programak bateraezinak izango dira estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk helburu berberarekin emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin.<br>• Minimis baldintzari lotutako laguntzak.<br>• Hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era irits daiteke. |
| **Laguntza kopurua** | **<u>1.jarduera - Txatar bihurtzea</u>**<br>• Ibilgailuaren kategoria eta antzinatasunaren arabera ezartzen dira laguntza finkoko zenbateko unitarioak, Euro emisio- estandarrari dagokionez definituta.<br>• Azken hartzaile eta deialdi bakoitzeko 30 ibilgailuko gehieneko laguntza-muga ezartzen da, pertsona fisikoentzat (autonomoak) izan ezik, azken hartzaile bakoitzerako ibilgailu baten muga izango baitute.<br>**<u>2. jarduera - Karbono gutxiko energia alternatiboen bidezko ibilgailuak</u>**<br>• Ibilgailuaren kategoria, motorizazioaren teknologiaren eta hartzaile motaren arabera ezartzen dira laguntza finkoko zenbateko indibidualak.<br>• Azken hartzaile eta deialdi bakoitzeko 50 ibilgailuko gehieneko laguntza-muga ezartzen da, pertsona fisikoentzat (autonomoak) izan ezik, azken hartzaile bakoitzerako ibilgailu baten muga izango baitute.<br>**<u>3. jarduera - "Retrofit"-a edo ibilgailuen propultsio modua aldatzea</u>**<br>• "Retrofit"-erako edo ibilgailuen propultsio modua aldatzeko zenbateko unitarioak ezartzen dira.<br>• Azken hartzaile eta deialdi bakoitzeko 50 ibilgailuko gehieneko laguntza-muga ezartzen da, pertsona fisikoentzat (autonomoak) izan ezik, azken hartzaile bakoitzerako ibilgailu baten muga izango baitute.<br>**<u>4. jarduera - Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea</u>**<br>• Laguntza finkoko zenbateko unitarioak ezartzen dira, guztiz instalatutako eta N2, N3, M2 eta M3 ibilgailu astunek erabiltzeko sarbideaz hornitutako kargatze puntu bakoitzeko.<br>**<u>5. jarduera - Trenbide-autobideetarako erdiatoiak erostea</u>**<br>• 1.000 €-ko laguntza finkoko zenbateko unitarioa ezartzen da.<br>• Azken hartzaile eta deialdi bakoitzeko 30 ibilgailuko gehieneko laguntza-muga ezartzen da, pertsona fisikoentzat (autonomoak) izan ezik, azken hartzaile bakoitzerako ibilgailu baten muga izango baitute. |

| | |
|---|---|
| **Finantzatzen duen erakundea** | Energiaren Euskal Erakundea (EEE) |
| **Guztizko aurrekontua** | 6.420.211,75 €<br>• 1. jarduera: 2.081.382,76 €<br>• 2. Jarduera: 3.210.105,81 €<br>• 3. jarduera: 42.021,18 €<br>• 4. Jarduera: 1.036.702,00€<br>• 5. Jarduera: 50.000 € |
| **Dokumentazioa** | https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Programa-de-ayudas-para-la-transformacion-de-flota?lang=eu-es<br><br>EBAZPENA, 2022ko martxoaren 1ekoa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez, errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen bidaiari eta salgaien garraio-flotak, bai eta garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere, eraldatzeko laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzen eta argitaratzen baitira eta horien deialdia egiten baita, Suspertze-, Eraldatze- eta Erresilientzia-Planaren esparruan<br><br>EBAZPENA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez honako ebazpen hau aldatzen baita: Ebazpena, 2022ko martxoaren 1ekoa.<br><br>EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 27koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena. Honen bitartez, errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen bidaiari eta salgaien garraio-flotak –bai eta garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere– eraldatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruko laguntza-programaren aurrekontu-zuzkiduraren berresleitzea iragartzen da.<br><br>EBAZPENA, 2023ko uztailaren 18koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2022ko martxoaren 1ean emandako Ebazpena bigarren aldiz aldatzen duena.<br><br>EBAZPENA, 2023ko abenduaren 11koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez hirugarren aldiz aldatzen baita 2022ko martxoaren 1eko Ebazpena. |